ASTO XELEBREA

Bazen behin asto bat sagarrak jaten zituena. Lorentxok, astoaren jabeak, pilotak sagar kolorez margotu zituen. Astoak, sagarrak zirelakoan, pilota denak jan zituen.



Gero astoa herrira eraman zuen. Hasi zen astoa kaka egiten eta pilota piloa egin zuen kakarekin batera. Hori ikusita deneK erosi nahi zuten halako asto kuriosoa. Eta Lorentxok astoa saldu eta diru asko irabazi zuen.

1. Zer jaten zuen astoak?

2. Norena zen astoa?

3. Zer bihurrikeria egin zuen Lorentzok?

4. Zergatik jan zituen pilotak astoak?

5. Zer gertatu zen astoarekin herrira eraman zuenean?

LIVEWORKSHEETS